

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

### • Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Funtsezko elementuak gure enpresaren balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea ahalbidetzen dute. Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira:

- Baliabide fisikoak: gure kasuan, lan egiten dugun bulegoa, ordenagailua, telefonoa, mahaiak, aulkiak eta sistema informatikoa izango lirateke.
- Baliabide intelektualak: informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak eta salmentetarako eta antolaketarako abileziak dira.
- Giza baliabideak: gaiarekiko ezagutzak (abokatuak → legediak; psikologoak → pertsonen portaera; administrariak → finantza kontuak dira.
- Finantza-baliabideak: materiala erostea, soldatak ordaintzea, eta gure aurrezki eta etekinak gestionatzea.

